Irungo
euskarazko
hamabostekaria

Irunero

395

Apirilak 15, 2021

2 Irun atzo, Irun gaur
3 Berri laburrak
4 Ijitoen Nazioarteko Eguna
5 Santalla musika taldea
6-7 Txingudiko ikasleen komikiak
8 Kirolak: Euskal Herriko Itzulia
9 Kirolak: Txingudi Errugbi Kluba
10 Oiassotik orainaldira
11 Haurren lanak / Denbora-pasak
12 Gazteen lanak
13 Beti gazte: "Move Your Talent"
14 iGazte
15 Agenda

caser residencial

INFORMA ZAITEZ!

Adineko pertsonentzako egoitzak

EGONALDI IRAUNKORRAK
ALDI BATERAKO EGONALDIAK
- FAMILIAREN ATSEDENERAKO
- ERREABILITAZIO, OPERAZIO ONDOKOAK
- GAIXONDOKOAK

Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Pirineo Atlantikoko Departamenduarekin hitzartuak

Caser Anaka - Anaka kalea 8- IRUN - 943 66 77 80. Caser Betharram - Zubieta kalea 161 - HONDARRIBIA 943 64 71 69

ZERGATU ZEN IRUNEN ORAIN DELA 100 URTE?

1921eko apirilaren 17an argitaratutako "El Bidasoa" aldizkaria orain dela mende bat Irunen albiste ziren gertaeren erakusle garbia da. Aldizkariaren hasieran eskela batek Don Román Arrizabalaga Olideren heriotzaren berri ematen du. Jarraian, P. Sarasquetak Amuteko futbol zelaira egindako bisita deskribatzen du, aurretik ikusitako beste futbol zelaiekin alderatuz. "De tierras lejanas" atalean hauteskundeak edo "Centro Español" aretoko giroa deskribatzen du C.P-k Txileko Santiago hiriburutik. Futbolaz hitz egiten duen pasarte baten ostean, aldizkariko kolaboratzaile ohikoa den "E.R"-k jokoa eta apustuaren debekuaz hitz egiten duen artikulua argitaratzen du.

"El Bidasoa" aldizkariaren 294. zenbakiko bigarren orrialdean Txingudi izenordeaz sinatzen duen kolaboratzaileak "Aldatuko da" izeneko olerkia publikatzen du. "Colocación de una primera piedra" titulua daraman artikuluan Hondarribiko Portu auzoko elizaren eraikuntzaz hitz egiten da. Mañuelek bere idatzian, berriz, Madrilera artzainez jantzita joan zen lagunaren istorioa kontatzen du, emazteak Mañueli lagunarekin batera Madrilera joateko baimenik eman ez ziola salatzeko. Kirolen atalean, Espainiako Futbol Txapelketaren gainean hainbat idatzi argitaratzen dira, finalerdietako partiduaren xehetasunak azaldu eta momentura arte jokatutako partiduen kronikak argitaratzen dira.

Aldizkariaren hirugarren orrialdean, kirolarekin loturiko artikulu gehiago irakur daitezke, zenbakia "Notas Municipales" edo "Ecos de sociedad" atalekin amaitu aurretik.

Argazkiak:

29163: Amuteko futbol zelaia, XX. mendearen hasieran jokatutako paritua.

59866: Stadium Galean jokatutako partidua 60ko hamarkadan.

61968: Stadium Galeko zelaia 1976ko martxoan.

IRUNERO

Erredakzioa eta maketazioa:
Ainara Berges
erredakzioa@irunero.eus
irunero@irunero.eus

Administrazioa:
Joseba Arozena

Zuzenketa:
Carlos Sánchez

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Publizitatea:
Amaia Terrazas
Ion Otxoa
Joseba Arozena
(jarozena@irunero.eus)

Diseinua eraberritzea:
Andrea Gomez Arocena

Inprenta:
ZEROA MULTIMEDIA S.A.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua:

Argitaratzailea:
837 comunicación y publicidad S.L.
www.837comunicacion.com

ISSN: 1134-0606

Lege gordailua: SS-230-94

Tel: 943042052

Webgunea: irunero.eus

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Udalak Katea-Plaiaundi korridoreko trenbide-eremuaren antolamendua aztertzeko ikerlana abiatu du

2020ko urtarrileko osoko bilkuran, Udalbatzak aho batez onetsi zuen Vía Irun proiektuko eremua antolatzeko irizpide eta helburuen dokumentua. Erabaki horren ondorioz, Katetik Plaiaundira doan korridore osoan trenbide-eremuaren antolamendua aztertzeko konpromisoa hartu zuen Udal Gobernuak.

Harrezkero, azken hilabeteotan, zenbait albiste positibo izan dira, eta, horiei esker, aurrera doa hiriarentzat hain garrantzitsua den Vía Irun proiektua. Horren adibide dira, esaterako, Vía Irun gidatzeko Zaisak estatusa aldatu izana edo Udalak ADIFen proiektuak jaso izana, hala Irunerako geltoki intermodalaren proiektua nola abiadura handiko trena gure herrira iristea ahalbidetuko duen hirugarren hariaren proiektua.

Esparru horretan, proiektua garatzeko urrats berriak eman dira. Katea eta Plaiaundi artean Irungo trenbide-eremua antolatzeko azterlana idaztea enkargatuko du Udalak. Pleguak kontratazio-fasean daude, eta enpresa garrantzitsuen arreta bereganatu du proiektuak. Orain haien proposamenak aztertu behar dira. Esleitu ondoren, kalkulatzen da urtebete inguru beharko dela behin betiko dokumentua aurkezteko.

Korridore berdea

Asmoa hiri-proiektuaren ikuspegi osoa Irungo trenbide-ingurune osoan integratuko duen azterlana egitea da, elementu hauek kontuan hartuta: korridore berde bat egitea ardatz osoan zehar, eta ETS, Topoaren operadorea, integratzeko ekimena aprobetxatzea egungo geltokiak berritzeko.

Era berean, lan honek irtenbide posible bat lantzeko aukera ematen du, gero ADIFi helaraziko zaiona, hirugarren haria ezartzeko proiektua egikaritzeko unean kontutan izan dezan. Irtenbideak Katea auzoan gaineko pasabideak eraistea planteatzen du. Halaber, bideak estaltzeko eta eremu osoa berroneratzeko aukerak aztertu ahal izango dira, Lope de Irigoyen eta Cipriano Larrañaga kaleen arteko loturaren inguruan eta Coloneko zubien eta saihesbidearen artean. Helburua Katea eta López de Becerra inguruetan gutxienez antolamendu-proposamenak izatea da. Erdialdeko eremuan, egungo proiektuetan aurrera egiteko proposamenak aztertuko dira, trenbide-lurzoruetan eskumena duten administrazioekin adostu beharreko etorkizuneko jarduketetarako gida izan daitezen.

López de Becerra kaleko aukera

Aipatzekoa da Katea-Erdialdea eta López de Becerra ekimen pribatuko eremuak direla. Hala ere, jabe ugari daudelako eta gehiengoa den jabetzarik ez dagoelako, zaildu egiten da haiek garatzea. Aipatu behar da Vía Irun operazio guztia lurraldearentzat hiri-berroneratzeko proiektu estrategikotzat hartu duela Gipuzkoako Aldundiak. Alde horretatik, azterlan horrek 75.000 euroko diru-laguntza jaso du Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuaren aldetik.

Apirilaren 29an egitekoa den KREA Bidasoak online formatua izango du

Irungo eta Hondarribiko udalek, Bidasoa bizirik-en bidez, KREA Bidasoaren hamabigarren edizioa antolatu dute apirilaren 29rako. Pandemia dela eta, aurten on line formatuarekin egingo da. Zehazki, ekimen guztiak Irun Factoryn egingo dira, segurtasun-neurri guztiak beteko direla bermatu eta saioak "streaming" bidez jarraitu ahal izango dira Bidasoa bizirik-eko YouTube plataforman duen kanalaren bidez.

KREA Bidasoa ekintzaileek, enpresek eta beste erakunde publiko zein pribatuek harremanak egiteko, negozio-aukerak identifikatzeko, ezagutzak zabaltzeko eta beste esperientzia eta joera berriak ezagutzeko jardunaldi da. Aurtengoa jardunaldiaren 12. edizioa izango da.

Miguel Ángel Páez Bidasoa bizirik-eko presidentearen hitzetan, "iaz ezin izan genuen ekitaldi hau egin, baina aurten ez dugu aukera galdu nahi izan. Beraz, egungo egoerara egokitu gara berriro ere, gure eskualdeko pertsona ekintzaileei laguntzen jarraitu ahal izateko eta haiei topagune bat eskaintzeko, nahiz eta aurten ezberdina izan, beren proiektuetarako harreman interesgarriak ezar ditzaten. Halaber, gure lurraldean dauden baliabideak, talentua eta berrikuntza balioestea da KREAren beste helburu bat", azaldu du Bidasoa bizirik-eko presidenteak.

Bestalde, agentziako presidenteorde María Serranok dioenez, "aurten inoiz baino gehiago KREA teknologia eta joera berriak zein garai berrietara egokitzen diren negozioak ezagutzeko topagunea izango da. "Enpresek eta ekintzaileek oso tailer interesgarriak izango dituzte beren proiektuek aro berri honetan etorkizuna izan dezaten", gaineratu du Bidasoa bizirik elkarteko presidenteordeak.

Askotariko ekimenak

Apirilaren 29ko goizean, hitzaldiak, kasu praktikoen ikustaldiak eta zuzeneko elkarrizketak egingo dira. Gainera, 'Bask Tree Boys' antzerki-taldeak girotutako ekitaldia izango da. Horretarako, jardunaldiaren zati desberdinen artean hainbat sketch eskainiko ditu taldeak.

Miguel Angel Páezek 12. KREA Bidasoaren programa aurkeztu du. "Lehenengo orduan, etorkizuneko joerak eta negozioak ezagutu eta gure eskualdeko enpresen kasu arrakastatsuen bideo txikiak ikusiko ditugu. Parte-hartzaileen negozioetan berrikuntzak egiteko aukeraz ere hitz egingo da, baita horretarako dauden laguntzez ere" adierazi du presidenteak. Era berean, "produktu berritzaileak aurkeztuko dira horien sortzaileei zuzenean egindako elkarrizketen bidez, eta Seulekin konektatuko gara sortzen ari diren teknologia berriak ezagutzeko", adierazi du Páezek.

Halaber, urtero bezala, KREA PechaKucha aurkezpenekin amaituko da. Inguruko enpresa edo ekintzaileek beren proiektu-ideiak, enpresa berriak, egin dituzten lanak edo izan duten ibilbidea jendaurrean aurkezteko aukera izango dute.

Programa osoa eta izena emateko formularioa www.bidasoa-activa.com helbidean eskura daitezke.

ANTXETA IRRATIA 90.5 / 89.7 FM

olaizola INMOBILIARIA AGENTZIA
Salmenta-Alokairuak
Promozio berriak
Aholkularitza
Beraketa kalea, 17 • 20302 IRUN • Tel: 943 626585
info@inmobiliariaolaizola.com
www.inmobiliariaolaizola.com

Apirilaren 8a, Ijito Herriaren Nazioarteko Eguna

Gaur, 2021eko apirilaren 8an, Kale Dor Kayiko elkarteak eta Kera emakume ijitoen elkarteak Ijito Herriaren Nazioarteko Eguna ospatzen dugu.

Gaur, 50 urte bete dira munduko hainbat tokitako erreferente diren ijitoak Londresen Ijitoen Munduko I. Biltzarrean (1971) elkartu zirenetik, mundu osoko ijito-komunitateak bateratzeko eta haien onarpena lortzeko. Horrela, erabaki batzuk adostu zituzten gure herriarentzat, hala nola gure bandera, gure ereserkia (Gelem Gelem) eta Herri Rom izena.

Gaur harrotasun, errekonozimendu eta gure nortasun kulturalaren aldarrikapen eguna da, historia eta kultura propioa duen herria garelako, ia 600 urte daramatzagulako Euskadin eta, beraz, lurraldean dagoen mosaiko kulturalaren parte garelako.

Gizarte justuago bat nahi dugu, gure nortasuna errespetatuko duena eta gainerako pertsonen aukera berdinak eskainiko dizkiguna. Gure "Romanipen" (identitatea) mantendu nahi dugu, eta ijitoak izaten jarraitu, harrotasunez eta duintasunez.

Horrela, gaur Palmera Montero gunean gure historia eta kulturari buruzko tailer bat garatu dugu, gure burua ezagutzera emateko, ikusarazi eta gure egunean protagonismoa izateko, ekuazio hau oso argi baitugu: "Ezagutu + Onartu = Errespetatu".

Gogora ekarri ditugu gure jatorria, India, Europan zehar Penintsulara (1425) iritsi arteko bidaia, mendeetan jasandako jazarpenak, gure hizkuntza, erromanesa, eta hemen kaloa, gure ijito balioak, gure ohiturak, gaur egun bizirik dirautenak.

Gure herria bizitzen ari den eraldaketa positiboari buruz hausnartu dugu, gure egungo eta etorkizuneko erronkei buruz, etorkizunerako prestakuntzak duen garrantziari buruz, partaidetza sozialari buruz..., alde guztietatik aberasgarria izan den goiza.

Ondoren, Ibarlara joan gara eta ibaira hurbildu gara "ibaiaren zeremonia" tradizionala ospatzera, kandelak piztuz eta lore-hostoak jaurtiz gure arbasoen oroimenez, gure historia gogoratzeko eta gure nortasuna indartzeko, gaur egun eta etorkizunean.

SASTIPEN THAJ MESTIPEN!!

OSASUNA ETA ASKATASUNA!!

EZAGUTU + ONARTU = ERRESPETATU

Santalla taldeak bere ibilbide musikalari hasiera eman dio sare sozialen bitartez

Santalla taldeak bere ibilbide musikalari hasiera eman dio sare sozialen bitartez. Mikel Goñi, Carlos Zubikoa, Pepelu Garnicia eta Gorka Santalla laukoteak osatzen du, hiru gitarra eta baxu jotzaile bat. Taldearen lehen bideoklipak sare sozialetan izandako arrakastarekin pozik agertu dira Gorka Santalla eta Mikel Goñi taldekideak.

Nola sortzen da Santalla musika taldea?
Gorka: Hiru urte neramatzan musikarekin loturiko proiekturen bat hasteko intentzioarekin eta orain arte ezinezkoa izan zait momentu egokia topatzea. Izan ere, ez nuen topatzen egun Santallan dauzkagun abestientzako egokia izan zitekeen proiekturik, kantautore estiloko abestiak dira eta pena handia ematen zidan abestiak galtzeak. Luis Eduardo Auteren heriotzaren harira, abesti bat konposatu eta sare sozialetan partekatzea erabaki genuen. Horrela, lau lagun elkartu gara proiektuari forma emateko bidean gaude.

Ohi baino zailagoa izan behar du egungo testuinguruan musika talde bat sortzeak, ezta?
Mikel: Bai, egia esan, pandemiak kultura eta musikaren mundua gogor kolpatu du. Hortaz, egia da proiektuari zabalpena emateko garai konplikatua dela. Dena den, egoera hobetzen denean zabalpen lanetan zentratuko gara eta, bien bitartean, proiektua lantzen jarraituko dugu.

Zuen ibilbidea hasi besterik ez da egin, baina harrera beroa jaso duzue?
Gorka: Bai, gure lana lagunen artean zabaltzen hasteko Instagram-en kontua ireki nuen. Hala ere, bideoak uste baino zabalpen gehiago izan du, ez dakit abestiak Auteri egindako omenaldia delako edo zergatik. Abestia partekatu genuenetik 3 egun besterik ez dira pasa eta denbora-tarte labur horretan ez genuen 2.000 ikustaldi lortzea espero. Beraz, oso pozik gaude bideoak izandako harrerarekin.

Nola definituko zenukete zuen estiloa?
Gorka: Azken finean, kantautore estiloko abestiak lantzen ditugu. Hain zuzen ere, izaera antzekoa duten proiektuetatik gatoz. Ni adibidez indie rock estiloko Malforta taldetik nator eta estudioan maketa bat grabatu dugu, nahiz eta oraindik lana zabaltzeko aukerarik izan ez dugun. Mikel, berriz, Lanbroa izeneko talde batetik dator eta haien estiloa ere guztiz desberdina da Santallan egiten dugunarekin alderatuta. Guk, ordea, amodio, amorrualdi eta emozioetan oinarritutako abestiak egiten ditugu. Hau da, bizitza osoan zehar Aute, Sabina, Silvio Rodríguez edo bestelako autoreei entzundakoen antzekoak dira.

Sare sozialen bitartez izan bada ere, publikoaren berotasuna jaso duzue?
Gorka: Bai, izugarria da abesti bat partekatu ostean publikoaren aldetik jaso daitekeen berotasuna. Azken finean, sare sozialetara zerbait igotzen duzunean dauzkazun jarraitzaileen adinako harrera izatea espero duzu. Gure kasuan, aldiz, hiru egunetan Instagram bidez 1.000 pertsonarengana iristea lortu dugu eta Youtuben 2.000 ikustalditara iritsi gara, beraz, jendeari asko gustatu zaiola dirudi.

Lehen abestia aurkeztu ostean, zeintzuk dira taldearen hurrengo helburuak?
Mikel: Bideoklipa partekatu genuen Auteren heriotzaren urteurrena aitzakitzat hartuta, hala ere, oraindik proiektua garatzen jarraitu behar dugu. Horretarako, erdizka dauzkagun abestiak amaitzea falta zaigu eta bakoitzaren ikuspegi musikala txertatzeko modua topatu behar dugu. Egoera hobetzen denerako prest egon nahi dugu, zuzeneko emanaldiak eskaini ahal izateko.

Gorkak konfinamenduan zehar "Irun Zuzenean Etxean" ekimenean parte hartu zuen. Nola baloratuko zenuke esperientzia hori?
Gorka: Bai, ekimen ederra izan zela uste dut. Oso garai konplexuak ziren eta etxean geunden bitartean burua eztanda egiteko zorian genuen. Proiektu musikala hasia nuenez eta abestiak partekatzen hasi nintzela ikusi zuenez, Iñaki Estevezek zuzeneko kontzertuetan parte hartzera gonbidatu ninduen. Gonbidapenak sorpresaz harrapatu ninduen eta kontzertuetan Gorka Santalla gisa parte hartu nuen, ez taldearen izenean. Oso polita izan zela esan dezaket, ilusioz beteriko kontzertua, orduan oso beharrezkoa baitzen. Gainera, beldurra kentzeko oso lagungarria izan zen.

Aurten udaleko Kultura arloak KM0ko kultura sustatzeko asmoa berretsi du. Zuen taldearentzat horrelako albisteak pozgarriak izango dira, ezta?
Mikel: Bai, udalak kulturarekin loturiko hainbat ekimen martxan jartzeko asmoa duela dirudi. Garai konplikatuak dira, baina era horretako ekimenak proiektua zabaldu eta ezagutarazten hasteko lagungarria izan daitezke. Nire esperientziaren arabera, Gorka proiektura batzea proposatu zidanean, letren lirika bereziki erakargarria iruditu zitzaidan, hortaz, eduki aldetik nahiko proiektu desberdina dela uste dut. Proiektu akustikoa da, hiru gitarrak eta baxu batek osatzen dugu taldea, horrela, kantautore estiloko musika eskatzen duen gertutasuna transmititzea lortzen dugu.

Non entzun ditzake jendeak zuen abestiak?
Gorka: Youtuben kanal bat ireki dugu "Santalla banda" izenarekin. Bertan jendeak orain arte partekatutako bideoak ikusi ahalko ditu. Logistika arazoak direla eta, momentuz ez dugu Facebook-a Instagram-eko kontuarekin koordinatzea lortu. Hortaz gain, Gorka Santalla izeneko nire kontuan ere musikarekin loturiko edukiak partekatzen ditut eta aurrerantzean baliabide horiek erabiltzen jarraituko dugula uste dut.

Zeintzuk dira datozen hilabeteetara begira talde gisa eman nahiko zenituzketen hurrengo urratsak?
Mikel: Aurretik esan bezala, proiektua lantzen jarraitu behar dugu, aukera dugunean gure lana erakutsi ahal izateko. Horretarako pazientzia beharko dugu. Elkarrizketa amaitu baino lehen bide berri honen hasieran bideokliparen sorreran lagundu gaituzten Javier San Martín (Shaf) eta Eneko Lekuonak egindako lana eskertzea gustatuko litzaiguke, haien laguntza funtsezkoa izan baita guretzat.

Txingudi Ikastolako ikasleek komikien bitartez landu dituzte euskal arrantzaleek Ternuara egindako bidaiak

Ikasleen lanak Irunero aldizkariaren hurrengo zenbakietan argitaratuko dira

Txingudi Ikastolako DBHko 3. mailako ikasleek komikien bitartez landu dituzte euskal arrantzaleek Ternuara egindako bidaiak. Elias Goiburu Gizarte irakasleak komikiak egiteko ideia nola sortu zen azaldu du eta komikiak egin dituzten ikasle batzuek esperientzia zer iruditu zaien kontatu dute. Erreportaje honen barnean Txingudiko ikasleek egindako komikietako bat txertatu da eta beste komikiak urte osoan zehar Irunero aldizkariaren hurrengo zenbakietan argitaratuko dira.

Elias Goiburu Txingudi Ikastolako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. mailan Gizarte ikasgaiko irakaslea da. Irakasleak azaldu duenez, 2020ko Gabonetako oporren aurretik ikasleekin Aro Modernoaren gaia landu zuten. "Colonek Gaztelako Erresumarentzat egindako 4 bidaiak aztertu genituen", adierazi du Elias Goiburuk. Ikasleek klasean landutako edukien alde praktikoa ezagutzeko aukera izan zezaten, Donostiako Albaola Itsas Kultur Faktoriara ikasleekin irteera bat egitea erabaki zuten. Elias Goiburuk azaldu duenez, "irteera ikasgai desberdinen arteko diziplinartekotasuna lantzeko modu aproposa iruditu zitzaigun, Gizarteko edukiak lantzeaz gain, beste ikasgaietan ikasitakoa praktikan jartzeko balioko zuelakoan". Irteeraren ostean, klasean landu beharreko edukiak jada amaituta zituztenez eta Gabonetako Oporrak hasteko denbora gutxi falta zela aprobetxatuz, komiki baten bitartez euskal arrantzaleek baleak arrantzatzeko Ternuara egindako bidaiak modu ezohiko batean lantzea bururatu zitzaien.

Komikien sorrerarako irakasleak ikasleei gai orokorra eman zien: euskal arrantzaleak Ternuan baleak arrantzatzen zituzten garaia. Ikasleei komikien munduan murgiltzen laguntzeko ikastetxearen webgunean eskegitako baliabideak erabili zituzten, komikien sorrera prozesuari buruzko bideoak zehazki. Goibururen hitzetan, tutoretza bideo hauen bitartez ikasleei gagaraiaren gaineko ideia orokorrak helarazi nahi izan zizkieten; ostean, ikasleek landu nahi zuten gaia eta ikuspuntua erabaki zezaten. Horrela, ikasleek sortutako komikiek egileen ukitu berezi izan dute.

Agindutik emaitzara

Ikasleek aurreko hilabeteetan zehar ikasgelan landutakoa islatuko zuten komikiak sortzeko proposamena beso zabalik onartu zuten. Komikiak sortzeko, ikasleak binaka elkartu ziren eta ikasleen artean jarduerak arrakasta izan duela dirudi. Laia Hernandez eta Ane Ferreira 3.Bko ikasleek hainbat pertsonai elkartzen dituen komiki bat sortu zuten. Ane Ferreirak azaldu duenez, hasieratik ideia nahiko argi izan zuten arren, istorioa idaztea konplikatuagoa izan zitzaien, gaian sakontzeko denbora gutxi izan baitzuten. Bestalde, gaiaren inguruko informazioa biltzeko eskola orduetan Interneteko baliabideak erabili zituztela adierazi du Laia Hernandezek. Era honetan, komikiaren sorrera etxean amaitu behar izan zuten, Anek gidoia idazten zuen bitartean Laiak marrazkiak egin zituelarik.

Nora Celihueta eta Aiora Hernandorena 3.A gelako ikasle bikotea dira eta haien komikian garai hartako emakumeen desioak eta gogoetak lantzea erabaki zuten. Nora Celihuetak adierazi duenez, portuan lan egiten zuten emakumeez aritu dira, emakumeek gizonen antzera itsasoan arrantzan lan egin nahi zutela marrazkien bidez islatzeko. Dena den, Aiora Hernandorenak onartu zuenez, komikien sorrerak azterketa garaian harrapatu zituen ikasleak, beraz, lana amaitzeko etxean ordu gehigarriak sartu behar izan zituzten emaitza dotorea izan zedin.

Komikien sorreran maisu

Irunero aldizkariaren zenbaki honetan zein hemendik aurrerako zenbakietan argitaratuko diren komikien emaitza ikusita, Txingudiko ikasleak komikiak egiten maisuak direla dirudi. Esaterako, Laia Hernandez eta Ane Ferreirak komikiak irakurtzeko ohitura dutela onartu dute. Hala ere, ikasle guztiek ez dute komikiak egin edo irakurtzeko ohiturarik. Nora Celihuetak, adibidez, honakoa komikia jorratu duen lehengo aldia izan dela onartu du. Aiora Hernandorenak, berriz, normalean komikiak egiteko ohiturarik izan ez arren, aurreko urtean Plastika irakasgaian komiki bat egin zutela gogoratu du.

Emaitza ikusita, jarduerak arrakasta izan duela dirudi, bai ikasle zein irakasleen artean. Izan ere, ikasleentzat bereziki erakargarria izan da ikaskideekin elkarlanean, apunteak hartzea, azterketak prestatzea edo irakasleen diskurtsoak entzutetik harago, lan berezi bat egiteko agindua jasotzea. Elias Goiburu irakasle den aldetik jarduerak izandako emaitzarekin pozik azaldu da eta datozen ikasturteetan ekintza errepikatzeko gogoak dituela onartu du.

"Irteera ikasgai desberdinen arteko diziplinartekotasuna lantzeko modu aproposa iruditu zitzaigun"

Elias Goiburu, Gizarteko irakaslea

Itsasontzi baten...



Txingudi Ikastolako ikasleek egindako komikiak
Egileak: Nora Celihueta eta Aiora Hernandorena, 3.A

Primoz Roglicek irabazi du 2021eko Euskal Herriko Itzulia

2021ean antolatutako kirol ekitaldi guztien antzera, 2021eko Itzulia pandemiarengatik baldintzatuta egon da eta txirrindularitza jarraitzaileen berotasuna faltan sumatu da. Sei egunetan zehar Euskal Herriko lurrak zeharkatu dituen lasterketaren amaieran Jumbo Visma taldeko Primoz Roglic izan da garaile. Lasterketaren 4. eta 5. etapetan txirrindulariek Bidasoa eskualdeko lurretan oinpekoei eragin zieten.

Konturatu orduko amaitu da 2021eko Itzulia. Guztira 167 txirrindulari batu ditu euskal lurrak sei etapetan zeharkatu dituen lasterketak. Itzuliaren 60. edizioa pandemiarengatik baldintzatuta egon da. Txirrindularitza zaletuei probako etapak etxetik jarraitzeko deia egin zaie lasterketaren hasieratik amaierara, errepide bazterretan ikusle pilaketak eta COVID-19aren kutsaketak murrizteko helburuarekin.

Lasterketa 13 kilometroko erlojupekoarekin hasi zen Bilbon eta lehen etapa hartan Primoz Roglic izan zen garaile. Bigarren etapan Alex Aranburuk 2021eko Euskal Herriko Itzuliko lehen garaipen euskalduna eskuratu zuen Sestaon. Hirugarren etapan Tadej Pogacar eta Roglic lehiatu ziren Ermualdeko helmugan garaipena eskura- tzeko, baina azkenean Pogacarrek lortu zuen esprint estu-estuan.

Laugarren etaparen amaieran Ion Izagirre eta Pello Bilbao esprintean ia batera iritsi ziren Hondarribiko helmugara, azkenean garaipena Izagirrek lortu zuelarik. Azken aurreko etapan Mikkel Honore izan zen 5. etapako helmuga zapaltzen lehena. Seigarren eta azken etapan Roglic Itzulia 2021 lasterketako txapeldun bihurtu zen ihesari ekin ondoren etapako irabazle izango zen Gaudu txirrindularіarekin batera.

Itzulia Bidasoko lurretan

2021eko Itzuliko etaparik luzeenak 189,1 kilometrorekin Gasteiz eta Hondarribia lotu zituen. Laugarren etapak amaiera zorrotza izan zuen Hondarribian, hondartza pareko helmugara iritsi aurretik txirrindulariek Jaizkibel eta Erlaitzeko gainak igo baitzituzten.

Astana-Premier Tech taldeko Ion Izagirrek irabazi zuen Hondarribian Euskal Herriko Itzuliko laugarren etapa. Azkenean, Ormaiztegiko txirrindularia izan zen Itzuliko laugarren etapako irabazlea, Gernikako aurkariarekin helmugara iritsi aurreko azken metroetan esprint estu batean lehiatu ostean. Epaileek fotofinisha erabili behar izan zuten garailea zein izan zen jakiteko.

Gainera, Itzuliko laugarren etapako helmugara hirugarren postuan iritsi ostean, UAE-Team Emirates taldeko Brandon McNulty txirrindularia lasterketako lider postua eskuratu zuen, etaparen amaieran liderraren elastikoa janzteko aukera eman ziona. Horrela, McNultyk sailkapeneko bigarren postura igaro zen Primoz Roglici 23 segundoko tartea lortuta.

Bidasoa eskualdeko lurrak atzean uzteko, Euskal Herriko Itzuliko 5. etapa Hondarribiko lurretatik atera zen. Horrela, txirrindulariek gipuzkoar kostaldeko herriak atzean utzi zituzten 160 kilometroko ibilbidearekin Ondarroako lurretara iritsi ostean. Azkenik, 111 kilometrorekin Itzuliko 60. edizioko etaparik laburrena izan arren, tropelak Gipuzkoa eta Bizkaiko 7 mendate igo zituen, lasterketa Arrateko gainean amaitu aurretik.

Errugbia ezagutarazi eta kirolaz gozatzeko asmoari eusten dio Txingudi errugbi klubak

Txingudi errugbi klubak kirola ezagutarazi eta errugbiaz gozatzeko asmoari eusten dio beste urte batez. Pandemia dela eta hartutako murriztapenek markatutako denboraldia aurrera ateratzeko ahalegin berezia egiten ari dira klubeko kirolariak. Bien bitartean, klubera jokalari berriak erakartzeko aukera guztiak aprobetxatu nahi dira.

Iñigo Camarero Txingudi errugbi klubeko lehen taldeko entrenatzaileak azaldu duenez, 2020-2021 denboraldia erronkez beterik dago sailkapenean posturik onena lortu nahian dabiltzan taldeentzat. “Pandemiaren zabalpena gutxitzeko murriztapenak direla eta, zenbaitetan partiduak edo entrenamenduak bertan behera utzi behar izan ditugu”, azaldu du entrenatzaileak. Galdutako partiduak berreskuratzeak azken orduko aldaketak eragiten dituen arren, klubaren errutina eta dinamika ahalik eta gutxien kaltetzen saiatzen dira.

Klubeko lehen taldeak 2020ko abuztuan hasi zuen denboraldi-aurrea, baina 2021eko urtarrilera arte itxaron behar izan zuen lehen partidua jokatzeko. Momentu hauetan denboraldiko une erabakigarrienetako batean daudela azaldu du Iñigo Camarero entrenatzaileak, izan ere, denboraldiko lehen fasea amaitzear dago. Fasearen amaierarekin sailkapeneko taldeak bi zatitan banatuko dira: sailkapeneko goiko postuetako taldeek lehen taldean jokatuko dute eta azkeneko sailkatuak, berriz, bigarren taldera pasako dira.

Txingudi sailkapeneko erdiko postuetan dago oraintxe. Iñigo Camarero entrenatzaileak adierazi duenez, “hurrengo partiduaren emaitzak denboraldiko bigarren zatian lehen edo bigarren taldean jokatzea baldintzatuko du”. 2020/2021 denboraldiaren funtzionamendua azaldu zenetik, Txingudi errugbi klubak sailkapenean erditik gorako postuetan amaitu nahiko luke klubeko ordezkariek jakinarazi dutenez. “Denboraldia hirugarren postua amaitzea sekulakoa izango litzakete, baina hortik gora sailkatzea ezinezkoa iruditzen zaigu gainontzeko taldeen joko-maila ikusita” azaldu du Camarerok.

Kluba handitu nahian

Denboraldia aurrera ateratzeaz gainera, Txingudi errugbi kluba kirolari berriak erakartzen saiatzen da, klubaren jarraipena bermatzeko. Iñigo Aizpuruak klubeko zuzendaritzako kideak azaldu duenez, pandemia egoera aurretik bi bide zituzten kirolari berriak erakar- tzeko. Lehena eta zuzenena ikastetxe bakoitzeko Gorputz Heziketa irakaslearekin hitz egitea zen, bere saio batean errugbia landu eta ikasleen artean ezagutarazteko. Gainera, ikastetxeetara errugbi entrenamenduen egutegiak eta errugbia lantzeko unitate didaktikoak bidaltzen dituzte, ikastetxeak familien artean bana ditzan.

Bestetik, azken urteetan Eskola Kirola programan errugbiaren eskaintza indartu da, izan ere, lehen saio bat ematen zen eta gaur egun 3-4 saio ematen dira. Horretarako, errugbia saioak hasi aurretik, begiraleei formazioa ematen diete, ondoren beraiek ikasleei errugbian nola jokatzen den azaltzeko ezagutzak izan ditzaten. Iñigo Aizpuruaren hitzetan, “klubaren etorkizunak haurrak dira”.

Txingudi errugbi klubak haurren adinaren arabera antolatzen ditu entrenamendu ordutegiak. Igandeetan, Plaiaundin, 10:30etatik 12:00etara Errugbi Eskolako haurrek entrenatzen dute, hau da, Lehen Hezkuntzako 3. mailatik 6. maila artekoak. Astearteetan 17:30etatik 19:00etara eta ostiraletan 18:30etatik 20:00etara 14 urtetik beherakoen txanda da. Astearte eta osteguneta 17:30etatik 19:00etara, berriz, 16 eta 18 urtetik beherakoek entrenatzen dute.

Dena den, Iñigo Aizpuruak onartu duenez, neskak errugbira erakartzea zailagoa da eta klubean ez dute ulertzen horren arrazoia zein izan daitekeen. Zentzu horretan, klubeko zuzendaritzako kideak adierazi du, “adin guztietan taldeak ditugu, baina nesken taldea falta zaigu eta hori izango da klubaren helburua datorren urteetan”. Horrela, klubetik Txingudi badiako neskak errugbia probatzera gonbidatu nahi dituzte.

Haurrei zuzendutako programa bereziez gainera, Txingudi klubak errugbia gizarteratzeko Errugbi Egunak antolatzen hasi da Irunen eta Hondarribian. 2020an klubaren 50. urteurrena ospatu zen eta urteurrenaren harira antolatutako ekitaldiak errugbia ezagutarazteko aprobetxatu ziren. Iñigo Aizpuruaren hitzetan kirola ezagutarazteko ekintzek garrantzi handi dute klubaren etorkizuna bermatzeko. “Tamalez, asko dira oraindik errugbia araurik gabeko kirola dela uste dutenak”, adierazi du Aizpuruak.

Kirolarien segurtasuna lehenestea

Errugbia taldekide zein aurkarien arteko kontaktu estuan oinarritutako kirola da. Ondorioz, zelaian pertsonen artean gorde beharreko distantzia errespetatzea ezinezkoa da. Txingudiko entrenatzaileak azaldu duenez, zelaian maskara erabili gabe jokatzeko baimena dute. “Zelaitik kanpo gaudenean segurtasun neurri guztiak errespetatzen ditugu”, gaineratu du Iñigo Camarerok.

Hortaz gain, partidu edo entrenamendu bakoitzean kontaktuan egon diren kirolarien izenekin zerrenda bat osatzen dute, kutsatze susmorik izanez gero, bakartu beharreko kirolariak azkar identifikatzeko. Klubean segurtasunari garrantzi handia ematen zaiola azaldu du Iñigo Aiz- puruak, batez ere, pandemia garaian. Horrela, kirola probatzeko asmoz Txingudi klubera hurbiltzen direnek segituan errugbia kirol segurua dela egiaztatuko dutela erantsi du.

FOTOGRAFÍA ESTUDIO GO VER™

Fernando Vergara
argazkilaria
Letxumborro hiribidea 100,2º
20305 Irun
943 840 113 - 647 930 484
www.fotogover.com
www.fotogoverbodas.com
info@fotogover.com

OIASSO NAHIERAN: MUSEOKO HITZALDIAK JARRAITZAILEEN INTERESEN GUSTURA

“Gai irabazleari buruko hitzaldia apirilaren 28an, asteazkena, Oiasso Museoan izanen da Jokin Lanz historialariaren eskutiK”

“Hurrengo edizioetako bat euskara hutsean egitea daukagu buruan”

2020ko hasieran eztanda egin zuen osasun krisiak sare sozialek gure egunerokotasunean duten garrantzia azpimarratu du. Oiasso Museoan, errealitate horretaz jabetuta, berebiziko ahalegina egiten jardun dugu (eta gabiltza) hilabete hauetan guztietan, interesatzen zaion ororri bertan antolatzen ditugun era guztietako ekimenen gaineko informazioa adieraziz eta baita Antzinaroa eta arkeologiarekin zerikusia duten eduki eta bitxikeriak aditzera emanez. Giro honetan sortu da gaurko honetan hitz egitera goazen Oiasso nahieran (Oiasso a la carta gaztelaniaz) jarduera berria.

Jarduerak hainbat fase ditu: lehenik eta behin, gure sareetan Antzinaroarekin zerikusia duten historia, mitologia eta arkeologiari loturiko lau gai azaltzen dira, gai hauen berri Museoko kontaktuei bidalitako posta elektronikoz, baita Facebook, Instagram eta Twitter bitartez ere emanez. Greziar eta erromatarren garaiekin loturiko gaiak ukitzeaz gain, Antzinate Berantiarrera eta Erdi Arora luzatzen diren zenbait atal ere izanen ditugu hiz- pide, K.o. V. mendetik aintzinera mendebaldean sortu ziren erreinu barbaroekin edota Ekialdeko Inperio Erromatarrarekin (historialariek Bizantzioko Inperioa ere deitzen dutena) loturiko gai edo pasarteak kasu. Behin lau gaiak zeintzuk diren azalduta, Oiasso Museoaren Twitterreko profilean astebeteko epea zabaltzen da gure jarraitzaileek sare sozialaren bitartez adierazitako lau aukera hauen artean beren kuttunena bozkatu dezaten. Twitterren bozka hauek modu anonimoan agertzen dira, baina, hala nahi izanez gero, plataforma birtual honetan erabiltzaileek aurkeztutako gaien inguruan beren iritzia emateko edota elkarrizketa sortzeko aukera ere badute. Bozkatzeko astebeteko epea pasa eta egun batzuetara, bozka gehien jaso dituen gaia Oiasso Museoan aurkezten dugu ordu beteko hitzaldi bat eskainiz. Hitzaldiaren data edizio bakoitzeko aldatuz joanen da, baina aldiro asteazken bateko arratsaldeko 19:00tan izanen da, sarrera doakoa izanik momentuko osasun neurriek eskatzen diguten eserleku kopurua bete arte. Hitzaldietako hizlaria Jokin Lanz dugu, Antzinateko Historian doktorea eta Oiasso Museoko jardueren teknikaria, baina zenbait kasutan gaian adituak diren irakasle gonbidatuak entzuteko aukera izan ahal dugu. Bukatzeko, hitzaldiaren ondorio nagusiak biltzen dituen bideo labur bat gure sareetara igotzen dugu, aurkeztutako gaiak ahalik eta zabalpen handiena izan dezan.

Oiasso nahieran-en lehendabiziko edizioa pasa den martxoan ospatu egin genuen. Hurrengo lau gai hauek izan ziren bozkatzeko proposatu zirenak: “Antzinaroko zazpi monumentu miragarriak”, “Troiako guda, historia eta mitoaren artean”, “Kaligula enperadorea, krimena eta erokeria” eta “Nor ziren bagaudak?”. Azken gai horrek jaso zituen bozka gehien eta martxoaren 24an Museoko Areto Nagusian aurkeztu genuen. Balorazioa positiboa izan da, aipatutako egunean gela ia bete genuelako eta bertaratu ziren ikus-entzuleek egindako galdera eta komentarioen bitartez sorturiko elkarrizketek dezente luzatu zutelako prestaturiko saioa. Hurrengo egunetan gure sare sozialetara igo genuen bagaudei buruzko bideo laburrak ere zabalpen nabaria izan du eta Oiasso nahieran-en edizio gehiago prestatzeko gogoak piztu dizkigu. Izan ere, bigarren edizioa abian dago jada eta apirilaren 12tik 19ra bitartean Twitterreko erabiltzaileek hurrengo lau gaien artean beren gogokoena aukeratu ahal dute: “Gladiadoreak: elitezko kirolariak”, “Arturo erregea, benetan existitu zen?”, “Antzinaroko 7 monumentu miragarriak” eta “Troiako guda, historia eta mitoaren artean”, azkeneko bi horiek aurreko aldian bigarren eta hirugarren postuan gelditu zirenez, beste aukera bat izanen dute oraingo edizioan. Gai irabazleari buruzko hitzaldia apirilaren 28an, asteazkena, Oiasso Museoan izanen da Jokin Lanz historialariaren eskutik.

Momentuz lehendabiziko bi edizio hauetarako erabili dugun hizkuntza gaztelania izan da, hala ere, hurrengo edizioetako bat euskara hutsean egitea daukagu buruan. Antzinaroarekin loturiko zenbait gai eta bitxikeriaz hitz egin eta jendartean aditzera emateko helburuarekin, ilusioz beterik eta gogo handiz hasi dugu Oiasso nahieran deituriko jarduera berri hau. Zuen interesa piztea lortu dugulakoan, zuen bozken zain gelditzen gara, ondoren gogoratu Oiasso Museoan Twitterreko emaitzen araberako ekitaldi interesgarri bat egonen dela apirilaren 28an arratsaldeko 19:00tan.

Jokin Lanz

EGUZKITZA HH





Eguzkitza eskolako 5 urteko haurrek egindako horma-irudia, “Itsasoko animaliak” proiektuaren harira.

Denbora-pasak

7 hitz: Intsektuak

		4			9			6
6			3		4	8		
								5
	7	9	6		5	3		
8				9		6		
2	6				3		9	
	3	7			8			
	8	6	9	5	7		4	
						9		

Txitxar, ipurtargi, liztor, erle, euli, inurri, labezomorro.

DUNBOA LH 3. ZIKLOA

EUSKARA IRUNEN BARRENA

Minazuloko sorgina

Artzai bat egun batian ardiyak falta´ttula.
Mendira juanentzen eken billa.
Eken errestun zuyela, ondotik gizon aundi bat, begi bat kopetin erdiyin zuena agertu zion.
Eta ordun artu zun gizon aundiyarek ta auntzun minazulo batera, Aranazko Malkorran.
Artzaia an desesperatua zaon, eta an begira asi ta bere ardiyen larruak ikusi zittuen.
Ordun kontu emantzun ardi lapurra zeintzen. Arratsa alletu zen eta su aundi bat egiña zun bere minazuluan.

Sorgiña lukartu zenian artzaiak artu zun burne bat eta paatu zun berotzen. Burnoa berotzetzen bittarte minazulua itxitzentzun arri aundiyura kendu zun ta antzin ardi larruek bizkartik pa´tu zittun.

Burni ori orittu zaonian beitik sartu zion sorgiñari.
Baña sorgiñari begiya etzion galdú.
Orduan artzaia ete´zen lasterka minazulotik.
Artu zun sorgiñak ardillarrutik ta artzaiak ardi larruak utzi zittun.
Eta ordun sorgiñak uste zun artzaia ardi larrukiñ bazamala biño artzaia eskuratu zen ordun.

Arantzako F.L.A., 14 urteko haurrari jasoa (1960-V-20).
Joxe Mari Pikabea, Arantzako lagun batengandik ikasi zuen oso txikia zelarik. (El Bidasoa, 1960-V-28)

Iturria: Nikolas Alzola Gerediaga
Euskaraz, Irunen barrena

“Move Your Talent” egitasmoa gazteen talentua mugitzeko helburuarekin iritsiko da Irunera

Egitasmoan parte hartzeko izen-ematea apirilaren 19a baino lehen egin beharko da

“Move Your Talent” ekimena apirilaren 23 eta 24an iritsiko da Irunera Gazte ARTEan-en eskutik. Egitasmoak, “Ausartu zaitez zure talentua mugitzera lelopean”, hiriko gazteen talentua mugitzeko plana martxan jartzea du helburu, programa dinamiko eta pratiko baten bitartez. Egitasmoan parte hartzeko izen-ematea apirilaren 19a baino lehen egin beharko da eta ikastaroak plaza kopurua mugatua du.

“Move Your Talent” 18 eta 30 urte bitarteko gazteentzat pentsatuta dagoen ekimena da. Egitasmoa euskaraz zein gazteleraz garatuko da Irungo Palmera Montero gunean aurrez aurre edo modu telematikoan, hau da, gazteek izena ematerako unean aukeratzen duten formatuan. Irunen egingo den “Move Your Talent” egitasmoan izena emateko epea apirilaren 19an amaitzen da. Izen-ematea bi modutan egin ahalko da. Batetik, Irungo Udalaren webgunea, programaren izen bereko ataleko formularioa betez. Bestetik, 010 edo 943505152 telefono zenbakietara deituz, astelehenetik ostiralera goizeko 8:00etatik 19:00etara eta larunbatetan 8:30etatik 13:30etara. Aipatzekoa da Irungo egitasmoak plaza mugatuak izango dituela, hau da, ikastaroa aurrez aurre egiteko 15 plaza eskaintzen dira eta modu telematikoan egiteko beste 15 plaza. Ikastaroa aurrez aurre zein modu telematikoan egiteko tokiak beteko balira, itxaron zerrenda 5 toki gordeko dira modalitate bakoitzeko.

“Move Your Talent” ekimenaren helburuetako bat gazteei lan-ingurune berriaren eskaria ezagutarazten laguntzea da, garapen profesionalaz arduratu eta ohiko ikaskuntzatik urruntzeko. Era horretan, nork bere burua ezagutzea lortu nahi da, mugatu egiten duten beldur eta usteei aurre egiteaz gainera. Horrela, jardunaldiak zuzenduko dituzten profesionalek gazteei balio-proposamena eta estrategia pertsonala garatzen lagunduko diete, haien helburuak lortzeko online eta offline bidezko komunikazio-plana diseinatuz.

Zehazki, programak bi jardunaldi izango ditu Irunen. Lehen jardunaldia apirilaren 23an egingo da arratsaldeko 16:30etatik 20:30etara eta lehen saioaren helburua nork bere burua ezagutzea izango da. Horretarako, paradigma-aldaketaz hitz egingo da. Gainera, talentua mugatu eta mugitzea eragozten duten usteak landuko dira, berau oztopatzen duena zer den eta beldurrak zeintzuk diren identifikatzen ikasteko.

Bigarren jardunaldia, berriz, otsailaren 24an egingo da, goizeko 9:30etatik 13:30etara, eta bigarren saioan estrategia eta komunikazioaren lanketan zentratuko dira. Bigarren jardunaldiaren helburua ametsak, asmoak, helburuak eta balio-proposamenak modu argian identifikatzea izango da eta hori lortzeko ibilbide-orri bat diseinatuko da ekintzak identifikatzea posible izan dadin. Hortaz gain, proposamenak ondo komunikatzeak nolako garrantzia duen erakutsiko da. Izan ere, talentua aztertu ostean, talentua mugitzeak zelako garrantzia duen azalduko da, ekintzarik gabe zerbait lortzea ezinezkoa dela ulertzeko.

Programaren xehetasunak
Almudena Lobato, Elena Arnaiz, Nagore Garcia eta Ruben Montesinos erreferentziazko lau profesionalen eskutik, gazteek talentu guztia martxan jartzeko gakoak ezagutuko dituzte. Lau profesionalak arituko dira jardunaldietan izena ematen duten gazteekin lanean. “Move Your Talent” ekimena osatzen duten profesionalek irakaskuntzan eta aldaketa- eta garapen-prozesuen bideratzaile gisa, Gazte ARTEan Iruneko erabiltzaileei lan-ingurune aldakor eta hiperkonektatu honetan haien erronka berriei aurre egiten erakutsiko diete.

“Move Your Talent” egitasmoaren metodologia praktiko baten oinarritzen da, profesionalek propio diseinatu dute programa. Hain zuzen ere, “eginez ikasteari” garrantzi handia ematen zaio egitasmoaren barnean. Gainera, parte-hartzaileek iritziak eta bizipenak partekatzeko aukera izango dute, programaren koordinazio lanaz arduratuko diren bideratzaileen esperientziarekin osatuko dena.

Informazioak gainezka egiten duen mundu globalizatu eta hiperkonektatu honetan, teknologiek hazteko eskaintzen dituzten aukera berriak aprobetxatzen ikasi behar dute profesionalek. Horrez gain, uretan arrain gisa moldatzeko gaitasunak eskuratu behar dituzte, argiaren abiaduran aldatzen den ingurune batean baitaude. Garapen profesionala eta soziala lantzea ez da aukera bat, geldituz gero, atzera egitea oso erraza baita. Atzean ez geratzeko etengabeko mugimenduan egotea beharrezkoa da, ziurtasun bakarra etengabeko aldaketa baita, eta horretarako teknologia berriak baliatu behar dira. Izan ere, teknologia berriek konektatzeko aukera emateaz gain, bai bezeroei bai enpresa berari balio handiena eskaini dezaketelako.

Giza Eskubideen kultura sustatzeko ikastaroa

Gazteekin, hezkuntza ez formalaren bitartez, Giza Eskubideen kultura sustatzeko ikastaroa. KAEBNAlk, Giza Eskubideen eta Kultura Demokratikoaren Zuzendaritza Nagusiaren koordinaziopean, Giza eskubideak eta aniztasunean bizikidetza defendatzeko eta zabaltzeko proiektuetarako Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza-planaren barruan aurreikusitako jardueren esparruan, Gipuzkoako gazteei zuzendutako ikastaro hau antolatu du.

"Aske jaiotzen gara eta berdinak gara duintasun eta eskubideetan"

Datak: Apirilaren 21, 22, 28 eta 29an.

Ordutegia: 16:00-19:30.

Lekua: Online (Zoom bitartez)

Izena emateko azken eguna: Apirilak 18.

Lan eskaintza: Sukaldeko laguntzailea

Sukaldeko laguntzailea behar da.

Lantokia: Loretxu taberna (Hondarribia).

Baldintzak:
- Bi urteko esperientzia izatea

- Berehala hasteko moduan egotea eta lan egiteko gogoa izatea.

Interesatuta bazaude, bidali curriculuma loretxujanetaedan@gmail.com helbidera edo tabernara zuzenean eraman.

Kafe Birtual informatiboa: Curriculum Vitae eta motibazio gutuna Europan

Kafe Birtual informatiboa: Curriculum Vitae eta motibazio gutuna Europan. Europan lan bila, eta inguruko herrialdeetako curriculum vitae eta motibazio gutunaren berezitasunen berri jakin nahi?

Parte hartu "Europa Joven Madrid" zentroak antolatutako kafe birtualean: atzerrian lan eskaintza baterako hautagaitza aurkezteko aholkuak emango dizkizute.

Eguna: Apirilak 22.

Ordua: 17:00etan.

Modalitatea: Online.

Izena ematen dutenei adierazten duten helbide elektronikora bidaliko zaie konektatzeko esteka, kafearen aurreko egunean.

Beint 2021 nazioarteko bekak

Beint 2021 nazioarteko beka-programaren deialdiaren xedea da unibertsitateko titulua duten gazteei nazioartekotzearen inguruko prestakuntza ematea, Euskadiko enpresek eta bestelako erakundeek profesionalen oinarri egokia izan dezaten ekonomia irekiak dakartzan erronkei eraginkortasunez erantzuteko.

Deitzailea: SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentzia

Epea: 2021eko apirilak 26.

Udalekuak 2021

Adina: 7-13 urtekoak (2008-2014 urte bitartean jaioak).

Lekuak: Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa.

Behin-behineko izen-ematea: Apirilaren 13tik 20ra.

Erreklamazioak: Apirilak 21 eta 22.

Zozketa: Apirilak 27.

Behin betiko izen-ematea: Apirilaren 28tik maiatzaren 6ra.

Antolatzailea: Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundiak.

Gazte Oporraldiak 2021

Adina: 14-17 urtekoak (2004-2007 urte bitartean jaioak).

Lekuak: Menorca, Gaztela eta Leon, Extremadura, Huesca, Guadalajara, Zarautz, Orio, Hondarribia, Bizkaia, Araba eta Nafarroa.

Behin-behineko izen-ematea: Apirilaren 13tik 20ra.

Erreklamazioak: Apirilak 21 eta 22.

Zozketa: Apirilak 27.

Behin betiko izen-ematea: Apirilaren 28tik maiatzaren 6ra.

Antolatzailea: Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundiak.

Apirilak

17

Bizinema Bang Bang

Zer: "Jumanji" eta "El Jovencito Frankenstein" filmen emanaldia jatorrizko bertsioan azpitituluekin.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 18:00etan.

Prezioa: 5,50 euro.

Sarrerak: Internet bidez, Irungo turismo bulegoan edo antzokiko leihatilan emanaldiaren egunean bertan.

22

Zure abenturaren bila

Zer: Ander Izagirrek "La isla de los seis mil ojos. Viaje por Cerdeña en bicicleta" film laburra aurkeztuko du.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 19:30etan.

Sarrera: Librea, gonbidapenarekin, lekuak bete arte.

Iraupena: 50 minutu.

Hizkuntza: Gazteleraz.

24

Magia

Zer: "Mr Red y Mr Blue" ikuskizuna Eriz magoa eta Mago Marsel-en eskutik.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 17:00etan.

Prezioa: 5,50 euro.

Sarrerak: Internet bidez, Irungo turismo bulegoan edo antzokiko leihatilan emanaldiaren egunean bertan.

Hizkuntza: Euskaraz.

25

Andre eta Jabe

Zer: Eider Pérez eta Leire Etxezarretaren eskutik.

Non: Oiasso Erromatar Museoan.

Ordua: 12:00etan.

Sarrera: Gonbidapenarekin, lekuak bete arte.

Iraupena: 60 minutu.

Hizkuntza: Euskaraz.

25

Liburu aurkezpena

Zer: Román Huartek idatzitako "Mery Ann se aparece" liburuaren aurkezpena eta mahai-ingurua.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 18:00etan.

Sarrera: Librea, tokiak bete arte.

Hizkuntza: Gaztelaniaz.

30

Dokulrun 2021

Zer: Laura Laviniak zuzendutako "Homeland Gone" film laburraren emanaldia, zuzendaria eta gidoilariaren parte-hartzearekin.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 19:00etan.

Sarrerak: Irungo Turismo bulegoan lortu daitezkeen gonbidapenekin, lekuak bete arte.

Iraupena: 35 minutu.

Denbora-pasen emaitzak

T	X	I	T	X	A	R	G	Y
R	I	L	V	F	A	Y	X	M
D	P	I	C	V	B	O	Q	V
N	U	Z	Q	O	T	M	Q	N
F	R	T	U	F	L	C	G	H
K	T	O	C	M	R	S	H	K
V	A	R	K	A	V	J	H	A
G	R	D	E	W	T	M	E	E
S	G	M	I	L	U	G	C	W
C	I	A	B	R	Z	E	U	L
F	W	I	X	U	E	Q	H	I
T	O	L	X	E	R	L	E	W
W	I	N	Q	K	C	F	F	D
M	J	Y	T	W	X	M	P	W

K	N	G	F	Q				
L	U	Q	V	M				
P	L	S						
T	C	A	T					
I	J	B	P					
N	P	E	U					
U	B	Z	M					
R	E	O	X					
R	D	M	H					
I	F	O	U					
N	P	R	T					
E	W	R	S					
Z	O	E						
I	G	N	V					

3	2	4	5	8	9	7	1	6
6	5	1	3	7	4	8	2	9
7	9	8	2	6	1	4	3	5
4	7	9	6	1	5	3	8	2
8	1	3	7	9	2	6	5	4
2	6	5	8	4	3	1	9	7
9	3	7	4	2	8	5	6	1
1	8	6	9	5	7	2	4	3
5	4	2	1	3	6	9	7	8

Espazio atsegin eta paregabe batean bizi nahi duzu?

Erreforma integralak

Zure etxebizitzan edo enpresan aldaketak egiteko asmoa baduzu. Hamaikan lagun zaitzakegu.

Km0

Konfiantzazko tokiko hornitzaileekin lan egiten dugu. Kalitatea eta zerbitzua emaitza perfektua lortzeko

Bereizi zaitez

Dekorazio aspergarri bera izateaz nekatuta zaude? Kalitatezko altzariak eta dekorazioa eskaintzen ditugu.

Profesionalak

Gremio bakoitzeko profesionalik onenekin lan egiten dugu. Erreformekin sufritzea amaitu da

HAMAIKA

San Marcos Plaza 1,
Hondarribia

(+34) 943 64 64 12
hamaikalan@gmail.com